



Euskal nortasuna(k) XXi mendera begira: 2050 helburu



Uzt. 02 2025

Kod. G16-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 02 2025

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Nortasuna egunero eraikitzen eta eraberritzen da, belaunaldi batetik bestera transmititzen da, eta inguruko komunitateen, tradizio filosofikoen eta kulturen eragina jasaten du. Euskal Herrian muturreko nortasun desberdinak eta -neurri handian- kontrajarriak bizi gara elkarrekin. Euskal Herriko lurraldeen artean ere desberdintasun nabariak daude, eta herritar gehienek euskal nortasunarekin identifikatzen badira, denek ez dute nortasun ezta euskal kulturarekiko harreman berdina.

Geroz eta anitzagoa den Euskal Herrian, erronka gehiagoren aurrean aurkitzen da euskal nortasuna. Unibertsalak diren erronkei (globalizazioa, iraultza teknologikoa, digitalizazioa, klima aldaketa eta bioaznitasunaren urritzea, migrazioa eta aniztasunaren kudeaketa, eragile-botere geopolitiko berriak, demokrazia ahultzeko joera globala eta Europako ongizate ereduaren neurri bateko akidura, etab.) euskal gizartean ematen ari diren erronkak batu behar zaizkie (jaiotze-tasa apala eta bizitza luzatzea, euskararen nahiz euskal kulturaren indarberritzea; euskal lurraldeen kohesioa eta memoria historiko partekatua eraikitzea; Euskal Herria munduko periferian gelditzearen arriskuari aurre egitea, gure ehun produktiboa eta soziala ontzea edota gure bizi-kalitateari eustea).

Euskal nortasunaren biziraupenaz arduratuta, Eusko Ikaskuntzak, *Euskal nortasuna(k) XXI. mendera begira: 2050 helburu* ikerketa burutu du. Ikerketa 2024ko uztailan bukatu zen eta 2024ko urriaren 2tik 4ra ospatu den Eusko Ikaskuntzaren Kongresua, lehen aldiz, ikerketaren ondorioak aurkeztu eta kontrastatu genituen. Nortasunaren etorkizunaz arreta jarritz, egungo gizarteak euskal nortasuna ulertzeko, definitzeko eta bizitzeko moduak ezagutu nahi izan ditugu. Halaber, euskal nortasunaren aldaketa aztertuz, egungo euskal nortasuna bultzatzen, sortzen edo indartzen duten egungo eragileak identifikatu ditugu.

Ikerketan zehar jasotako diskurtso hauek egungo gizarteak euskal nortasunean baloratzen dituen elementuak eta ezaugarriak identifikatzeko aukera eskaini dizkigu, eta baita ere nahiak edo desioak identifikatzeko. Euskal nortasunaren etorkizunean begirada jartzean balio garrantzitsuak azaleratzen dira: aniztasuna, berdintasuna, bizikidetza, elkartasuna, kohesio-soziala, komunitate zentzua,... Balio horietan oinarritzeaz eta sakontzeaz hitz egiten da, gizarte-harremanetan fokua jarritz.

Helburuak

Mugaz Gaindiko ikastaroak eskaintzen duen aukeraz baliatuz, *Euskal nortasuna(k) XXI. mendera begira: 2050 helburu* ikerketaren ondorioak gizarteratzeaz gain, eztabaida gaian sakondu eta hausnarketa sustatu nahi dugu ikastaro honen bitartez. Ikerketa 2024ko uztailan bukatu zen eta 2024ko urriaren 2tik 4ra ospatu den Eusko Ikaskuntzaren Kongresua, lehen aldiz, ikerketaren ondorioak aurkeztu eta kontrastatu genituen.

Ikerketak, euskal nortasunaren etorkizunaz arreta jarritz, egungo gizarteak euskal nortasuna ulertzeko, definitzeko eta bizitzeko moduak ezagutu nahi izan ditugu. Halaber, euskal nortasunaren aldaketa aztertuz, egungo euskal nortasuna bultzatzen, sortzen edo indartzen duten egungo eragileak identifikatu ditugu.

Euskal kultura eta hizkuntza komun bat, euskara, hurbiltzeko eta partekatzeko planteamendutik abiatuta, proiektuak honako hauek azpimarratzen ditu: elkar ezagutzeko beharra; hiru lurraldeetako herritarren artean interesa sortzea; eta lurralde kohesionatuagoa eta konektatuagoa eraikitzen laguntzea. Hau da, komunitatearen zentzua indartzea, eta, horri lotuta, balio soziokomunitarioak lantzea.

Programa

2025-07-02

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:25	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Ana Urkiza Ibaibarriaga Eusko Ikaskuntza
09:30 - 10:00	“Euskal nortasuna(k): ikerketa proiektuaren markoa” Patxi Juaristi Larrinaga UPV/EHU - Irakaslea
10:05 - 11:00	“Balio sozio-komunitarioak (bi hizlarien arteko solasaldia)” Francis Jaureguiberry
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:30	“Euskal nortasuna(k): euskara eta komunitatea, aniztasuna eta kohesio soziala, galtzearen eta gutxituaren sentimenduak, gazteak” Euskara eta komunitatea Jone Goirigolzarri Garaizar Deustuko Unibertsitatea. Bilbo - Irakaslea eta ikerlaria J. Inazio Marko Juanikorena EHU - Irakaslea Pluralidad de formas de entender la identidad vasca: propuestas para la cohesión social Carmen Innerarity Grau Nafarroako Unibertsitate Publikoa - Profesora Euskal nortasuna(k): Galtzearen eta gutxituaren sentimenduak Iñaki Zaldua Calleja UPV/EHU - Ikerlaria Gazteen begirada Olatz Elexpuru Dominguez UPV/EHU - Ikaslea
12:30 - 13:30	Atsedena
13:30 - 14:00	“Euskal nortasuna(k) eta lurraldetasuna” Elena Casiriain Iturriria Misio karguduna (Garapen Kontseilua) - Antropologian doktoregaia (EHU - UT2J) Paxkal Indo Garapen Kontseiluko lehendakaria
14:00 - 15:25	Tailerra: Euskal nortasuna etorkizunari begira / Taller: Identidad(es) vasca(s): mirando al futuro
15:30 - 15:55	“Kultur transmisioa, baina nori eta nola?” Itxaro Borda Idazlea
16:00 - 16:10	Itxiera Patxi Juaristi Larrinaga UPV/EHU - Irakaslea

Zuzendaritza



Josune Etxaniz Barrio

Eusko ikaskuntza

Eusko Ikaskuntzako 'Euskal nortasuna(k) XXI. mendera begira: 2050 helburu' proiektu arduraduna

Irakasleak



Itxaro Borda

Baionan sortua, 1959an. Historian lizentziatua, postaria izan da lanbidez erretiratu den arte duela bi urte. Gazterik hasi zen idazten, Maiatz aldizkariaren sorreran parte hartu zuen eta 2002an Euskadi literatura saria eskuratu zuen 100 % Basque nobelari esker. Amaia Ezpeldoi detektibe lesbianaren pertsonaia orraztu zuen. 2022an, Uhartearen mugetan Maiatz argitaletxean eta 2024an Susa-n Itzalen tektonika poema bildumak plazaratu ditu. Hainbat euskal kantarirentzat letrak idatzi ditu eta idazkuntzaren inguruko proiektu kolektibo askotan parte hartu du. 2025eko Gutun Zuria literatura festibalaren eta BBKren ohorezko Makila ukan berri du.



Elena Casiriain Iturriria

Antropologian doktoregaia, Toulouse-eko Jean Jaurès Unibertsitatean LISST-CAS ikerketa taldean eta EHUn GAIT ikerketa taldean. Misio karguduna Cifre kontratupean Garapen Kontseiluan. Ikerketa proiektuak: - Mugalur proiektuaren koordinatzaile eta ikerleetako bat (Garapen Kontseilua, Cederna-Garalur, EHU eta NAEN Euroeskualdea). - "Euskal Nortasunak XXI. mendera begira: 2050" ikerketa proiektuan ikerlea (Eusko Ikaskuntza) - «Mugi Muga: Euskal Herriko gazteak saretzen» (Ideiak 2024/Gipuzkoako Foru Aldundia) ikerketa-proiektuko ikertzailea.



Olatz Elexpuru Dominguez

Gradu Bikoitza: Politika Zientziak eta Kudeaketa Publikoa + Soziologia (4. maila).



Jone Goirigolzarri Garaizar


Deustuko Unibertsitatea

Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko irakaslea da eta unibertsitate bereko Gizarte Balioen ikertaldeko kidea. Soziologia eta Gizarte Antropologian lizentziatua da eta Gizarte Zientzietan doktorea. Bere ikerketa lerroa hizkuntza gutxituen biziberritzean xedarritu du eta hiztun berriak, hizkuntza jarrerak eta hizkuntza politikak izan ditu aztergai nagusi. Azken urteetan euskal hiztun berri gazteen kontzientzia soziolinguistiko kritikoa eta mudantza prozesuak ikertzen aritu da.



Paxkal Indo

Garapen Kontseiluko Lehendakaria 2018tik. Garapen Kontseiluko Lehendakari ordea (2013-2018). Garapen Kontseiluko kide 2008tik. Orgue en Baigorri elkarteko Lehendakaria (2013tik) Seaskako Lehendakaria (2008-2019) Eskolim elkarteko Lehendakaria (2010-2019) Bestalde, kultura ekoizpenean aditua, autorea, artista, musikari, teknikari, hezkuntza kulturala, hazlea, piroteknian aditua.



Carmen Innerarity Grau

Soziologiako irakasle titularra Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UNP). Irakasle gonbidatua Ludwig Maximilians Universität (Munich), Westfälische Wilhelms Universität (Münster), Fondation Maison des Sciences de l'homme (Paris), École Pratique des Hautes Études (Paris), Università Gabriele d'Annunzio (Chieti-Pescara) unibertsitateetan. I-COMMUNITAS Gizarte Ikerketa Aurreratuko Institutuko kidea (UNP). Bere ikerketak demokrazia liberalari buruzko gaiak jorratzen ditu unibertsitate testuinguruetan (batez ere kultura, erlijioa eta generoa), baita aniztasunaren aurkako ideologia eta eskuin erradikal populistaren diskurtsoak ere. Azken argitalpenak: National Populism and Religion: The Case of Fratelli d'Italia and Vox (2025); Gender in VOX's Ideology: Legitimization Strategy or Central Category? (2024); En defensa de la República. El lugar de la derecha radical en el debate francés sobre la laicidad (2023); La protección de lo sagrado en Francia: de las caricaturas a la ley para reforzar el respeto a los valores de la República (2022). Nafarroako Foru Komunitateko Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoaren zuzendaria, Nafarroako Gobernuako Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak eskatuta (2020-2021).



Francis Jaureguiberry


Francis Jauréguiberry soziologoa da, irakasle emeritua Paueko Unibertsitatean eta luzaz SET laborategia (Sociedad Medio Territorial) zuzendu du CNRSn. Bere ikerketak informazioaren eta komunikazioaren teknologien hedapenak sortzen dituen identitate eta soziabilitate molde berriei buruzkoak dira. IKTen erabilerei buruzko hainbat liburu eta artikulua idatzi ditu, baina baita identitatearen eta hipermodernitatearen soziologiari buruzkoak ere. "Komunikazioaren Soziologia" Ikerketa Batzordearen sortzaileetako bat eta arduraduna da Frantses Hizkuntzako Soziologoaren Nazioarteko Elkartean. francis.jaureguiberry @ ø-pau.es <https://www.francisjaureguiberry.org>



Patxi Juaristi Larrinaga

UPV/EHU , Doctor en Sociología. Profesor en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Información

Patxi Juaristi Larrinaga (Markina-Xemein, 1967) .Unibertsitateko irakasle Titularra da, UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Politika eta Administrazio Zientzia Sailean. Soziologian lizentziaduna (1990) eta doktorea (1995) da, eta UPV/EHUko irakaslea, 1993az geroztik. 1998an irakasle bisitaria izan zen Idahoko Unibertsitatean (AEB). 2005etik 2009ra bitarte, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate arloko zuzendaria izan zen. 2011tik 2012ra, Gobernantza eta Politika Ikasketak Masterreko koordinatzailea izan zen, eta, 2015. urteaz geroztik, UPV/EHUko Hizkuntza Politikak eta Plangintza Masterreko idazkari akademikoa da. 2009tik 2017ra UPV/EHUko Gizakiekin egindako Ikerketarako Etika Batzordeko (GIEB) kidea izan da. Halaber, UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskolako Kalitate Batzordeko kidea da (2016). Artikulu ugari eta 13 liburu argitaratu ditu euskal kultura, euskaldunen balio, euskara eta, oro har, hizkuntzei buruz. Gerra Zibilarekin eta memoria historikoarekin lotutako gaien gainean ere ikertu eta argitaratu du. Enpresa edo/eta administrazioekin gauzatutako I+Gko 33 kontratutan eta deialdi publikoetan finantzatutako I+Gko 18 proiektutan parte hartu du, eta horietako batzuen zuzendaria izan da.



J. Inazio Marko Juanikorena

Euskal Herriko Unibertsitatea

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Pedagogia Atalean Lizentziatua eta Doktorea. UPV/EHUren Doktorego Sari Berezia eta Euskarazko Tesien Mitxelena Saria eskuratu zituen. Fakultateko Dekanoa izan da UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean 2017tik 2021era, eta aurretik Hobekuntza eta Berrikuntzarako Dekanordea (2008/2017) eta Pedagogia Graduaren Koordinatzailea (2013/2016). UPV/EHUko irakasle agregatua HEFA fakultateko Hezkuntza Zientziak sailean, "Gizarte eta Hezkuntza Programa eta Zerbitzuen Ebaluazioa" edota "Hezkuntza Ikerkuntzaren Oinarriak" ikasgaiak bideratzen ditu. Hizkuntza eta gizarte pedagogiaren alorrean, esku-hartze gaietan, aldaketa prozesuen kudeaketan, programen plangintzan eta ebaluazioan, eta taldeen kudeaketan espezializatua. Gizartean zein erakundeetan hizkuntzarekin lotutako berrikuntza eta aldaketa prozesuei buruzko hainbat ikerketa burutu eta lanak argitaratu ditu.



Iñaki Zaldua Calleja

EHU

Eusko Jaurlaritzaren kontratuarekin Doktore Tesia jorratzen. Euskal Herriko periferietako abertzaleen nortasunen egituraketa aztertzen nabil besteak beste. Adimen artifiziala eta horrek nortasunen egituraketan duen eragina aztertzen hasi gara. Mugi Muga: Euskal Herriko gazteak saretzen» (Ideiak 2024/Gipuzkoako Foru Aldundia) ikerketa-proiektuko ikertzailea.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-07-02 ARTE
Mugaz Gaiindiko Uda Ikastaroak	0 EUR

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

3 Av. Jean Darrigrand, 64100 Bayonne, Francia.

Akitania